

P O T R E T E G I L E A

.....

Potret egilea bazter batzuen potretaren egiten ari da: tindu eta koloreak aldean ditu, eta huchtukatuz ari da bere lanari... Kolorea har eta paperean hedatzen... Anartean huchtua utzirik...

- Bai bazter ederrak dira; haistik heien pintatzeak lanak ditu... Goazen aintzine....

Gizon bat eta muthiko bat heldu zaizko.

Gizonak Errazu, jauna, barkamendurekin... Zu bide zira aiphatu daintaten pintrea potretak ere in momine santian egiten ditutzuna...

Pintreak Bai, jauna, bai, seguraz ere... Zure potreta nahi baitzinuen?

Gizonak ez enea ez

Pintreak Mutiko pullit hunena beraz

Gizonak ez eta ere... Ene emaztearena

Pintreak Noiz beharko dut bada zure etcherat jin zure andrearen itchuraren hartzeko...

Gizonak nigarrez) Ez duzu gure etcherat jiterik... Gaicho Martchalina

Pintreak zer duzu bada... andrea eri?

Gizonak eri baino area, jaun pintrea; hila... (hipaka ari dira aita semeak)

Pintrea Barkatu jauna, parte handia hartzen dut Segurki zure bihotz-minean; bainan noiz hil zautzu andre gaicho hori?

Gizonak Duela hiru urthe jauna... Ah jite borthitzaz zuen, gaichoak, bainan izigarri emazte prestua zen; ez dea hala Martchel

Haurrak Ba aita.

Gizonak chuka tzak begi hoik, hortik eta zintza hadi

Pintrea zure andre zenaren potret ttipi bat badukezu, jauna, modela gisa?

Gizonak photographia balimbanu ez nuke zure potretaren beharrik; ez jauna ez dut haren fotografiarik.

Pintrea zer eginen dut ba

Gizonak nik behar dautzuta ofizioa erakutsi

Pintrea haur hunek badueia ama zenaren iterik batere

Gizonak sendimenduz eta adimenduz dena ama; begitartez eta trakaz dena aita ez dea hala muñu...

Haurrak ba aita.

Pintrea bon,bainan zuk ez duzu ahañtzia nolatsu zitaken zure lagun zena

Gizonak zer uste duzu ala burua mehatzen ari zaitala

Pintrea Jainkoak beira...Erranen dautazu bada nolakoa zen

Gizonak ah,jite borthitza zuen,jauna,bainan emazte gichakoa hitz eta promes dautzut halako guti ~~zeñ~~ munduan aurki ditakela

Pintrea zombat gora zuken ?

Gizonak zombat gora? nik dakita ? ni baino handiago zela uste dut bainan haren negurtzea ez zait sekulan gogoratu ere

Pintrea Bon,burutik eta paporaino eginen dut heren potreta;holo ez gira engenatuko;handia zenez ala ttipia ez dugu jakitearen beharrik

Gizonak arrazoin duzu;merkeago ere helduko zaut behar bida

Pintrea erran gabea;beraz bisaia nola zuen biribil ala...

Gizonak bisai ona,jauna.Bere bultak bazituen bertzeak bezala,bainan bana ~~be~~ bertze emazte ona.

Pintrea begitartea ilargia bezela zuena,errund-errunda,ala arroltzearen iduriko, "ovale" erraiten baitute

Gizonak "ovale" errak hi martzel zertifikatean ibili bañhaiz,zer duk oval hori

Haurrak ez dakit aita

Gizonak jaun pintrea emazu bien arteko

Pintrea eta begiak

Gizonak biziki kokinak,jauna.

Pintrea ez naiz estonatzen...bainan zer kolore:belitch,urdin itsas-ferde,ala gaztaine ~~hopereak~~

Gizonak pareak ba,jauna...Biga bazituen...Ea haurra,hi orhoit hize koloreaz

Haurrak badakit ez zituela bi begiak berdin berdinak lunetak ere behar zituen

Gizonak emoizu luneta beltzak,holo nihok ez du deusik ikusiko

Pintrea egia zuk...Orai sudurra

Gizonak bai sudur ona zuen;denak sumatzen,ihiziko zakurrak bezala...

Pintrea ba,bainan behar nuke jakin sudur hori sudur kako,zapal,makets;kaiku ala harroa zen..

Gizonak bere buruarekin)makets,makets

haurrak aita zer da sudur maketsa ?

Gizonak ago ichilik,ez duk hire afera..(haurra muthurtzen da) nola erran duzu jaun pintrea,sudur karroa ?

Pintrea ez karroa ez;harroa,eskalapoin puntaren idurikoa.

- Gizonak bon, emazu bien arteko.
- Pintrea lanak dira... Eta beharria
- Gizona Bai, beharri fina; ez zitzaion deus ere gordetzen ahal... Askotan errana diot: kurios eta pinterdi
- Pintrea haatik beharri horiek nolakoak ziren, jaun maitea? Beharri motzak ala
- Gizonak koleran) jakizu ez dela gure familian beharri motzik; denak eskualdun garbi garbiak gira... denak gero, denak oro... Ez dut onhartzen beharri motzik aiphatzea ere; komprenitzen duzu? Petre=egile
- Pintrea Ba, jauna, ba; beraz beharri luzeak emanen diozkagu
- Gizonak luzeak? beharri luzeak? Baduzuia burutik? Jakizu gure familian ez dela astorik ez eta astañarik...
- Pintrea Barka zadazu, jauna, bainan hiziki sentikorra zaitut; denak makur hartzen dauztatzu... Ea, haurra, amak nola zituen beharriak...
- Haurrak muthur) ez dazkiot sekulan ikusi... Ilek kukutzen ziozkaten...
- Gizona k Jesus.. hala da-eta.. Bon, gorde zaitzu beharri hoik; hola ez dukegu maku*ii*
- Pintrea eta ahoa?
- Gizonak mihi bat gaitza; ez zuen ichiltzerik behin hasi ta; etchen ez dut a aditu ogi joiteko mekanikarik, ez eta ere gerlan mitraillusarik, harek bezembañ arrabots egiten zuenik; zer kalaka... Bainan, behar dut ~~ai~~ aithortu halere emazte gichakoa zen bere maneran...
- Pintrea jadanik erran dautazu hori... Bainan nahi nuke jakin aho handia ala ttipia zuenetz, bildua ala kefa.?
- Gizonak othoi jauna; emozu aho hori enea bezela, sudur azpian; ez zaitela har bis*aa* edertu beharrez; zen bezela aski zait...
- Pintrea eta kokotsa?
- Gizonak ba kokots fierra zuen eta kolaspe izpi bat ere, lepo paparda haste batekin... Ez dea hala muñu?
- Haurrak muthur) ez da ene afera.
- Gizonak beha zazu haur ichpindola horri? Nun duk aitaren errspetua?
- Pintrea eta eskuak?
- Gizonak bo, eskuak... zalhuak zituen... Zifli zafla hasten zelarik, harrigarria zen, ifernuko sugeareh ziztuak zituen... eta larru idorra gero, hedekia kasik... Bainan fite pasatzen zitzion eta orduan bildotcha iduri zuen hain zen eztia eta gochoa.
- Pintrea ez dautazu chehetasunik emaiten, ea erhi luzeak zituenetz ala laburrak
- Gizonak ah, ahanzter bainuen... erhaztun pollit bat bazuen erhi huntas... Bai ezkonsei ginelarik eros i nion Ezpeletako feirietan; ehiza orhoit muñu orduan ginen urus orduan...
- aurrak ez, aita, ez, ez niz batere orhoit...

Gizonak hala duk; gaztegi hintzen orduan...

Pintrea horiek hola eginen dautzut abian zure andre zenaren potreta... Zaude hor ichtant bat; minuta baten lana da...

(Potret egilia ari da potret-eren egiten. Haurra hurbiltzen da lanaren ikusteko)

Gizona k Martzek haugi hunat; utzak jaun hori lanean artzerat... Kontent hiza orai ikusiko baitut amaren potreta den den bezela?

Haurrak ba aita.

Gizonak zer den hatik esku airea... Beha zok nola ari den, ama begien aintzinean balu bezela

Pintrea gorri pochi bat hemendik... Hortchet marra beltch bat... Ordin izpi bat la... la... churi firfira bat matelan... la... jaun maitea, huna egina... hogoi-ta-hamar libera duzu pena...

Gizonak dirua emaiten du eta potreta hartzen)... Milesker...

Pintrea nik zuri...

(aita semeak beha daude ichtant bat potretari eta nigarrez hasten biak chotinka...)

Gizonak gaicho Martchalina

Haurrak Gaicho ama

Pintrea ez nuen uste hain untsa kausituko nuela....

Gizonak ichtant baten buruan)... Jauna, norra potreta... atchik azu... pena sobera egiten daut... Gaicho Martchalina... nola kambiatu den hiru urthe hantan (nigarrez atheratzen da semearekin)....

F I N
